

Munduko izkuntza bakarraren ametsa

José Tomás CABOT'ek

Izkuntzen bereizkuntza — Bibliak diñoanez, Babel torrearen jasotzailleen arrokeria zigor-azteko eragin eta aizkatua — gaur egunean be luzatzen da oindiño, gizasemeen alkar arteko ondo ulertzea neketsu egiñik. Guztiontzako egokia litzaken luditar izkuntza bakarraren ametsak izkuntzalari askoren gar, joran eta lanak indartu ta putz-azi ditu. Ona emen orreitariko batzuen edesti, kondaira edo istoria...

Danok bat gatoz gizonen artean alkar-aitze beteagoa bear litzakela antortzean. Guztiok opa doguna da. Ai, noizbait elduko ba'giña bat egitera bizitzea ulertzeko erra, balioen mailla berezi bat jartera, elburuak mugatzera...! Baiña guk orain darabilgun asmoa ez da gai ain zabalari edapena emotea. Gai onein aurretiko baldintza ta kondiziñoetatik bati bakar-bakarrak lotuko gaiakoz; oraindik es i garo gaitzez bananduta dagoan askotariko izkuntza-alkarte ta errien artean alkar-ulertzen obea erreztu al leikean tresnari, ain zuzen ba. Ez litzateke izango egingo-rago, egin-errez eta egin daiteke-nago, ustebide ta eritxien artu-amonak eta guztion arteko lana, gizaseme guztiok — ipar-amerikar, errusitar, txinar, japon-dar, frantzitar, espaiñar eta

abar — geure-geurea dan izkuntzaz gaiñ, beste bigarren izkuntza antzez egiña ta itun-legez onartu bat, eta guztiontzat ikasteko erreza dana?

Elburua: guztiok alkar ulertzea

Gizadiaren amets zaar dogu au, iñoiz be bete ez dana; amaikatxo belaunaldi beronen inguruan ibilliak dira, alan be, Erramon Llull jakintsuaren denporetatik asita beiñik-bein: onek zientzi bat eta izkuntza gura zituan irudien bitartez adierazo leikezan gogai eta bururakizun asimasiako gitxi batzuk alkar nastaurik egiñak, noski.


Llull'ren ametsak, adierazoa izan zanetik lau gizaldi geroago, Leibniz alemanagan aurkitu eban oiartzun bereizia; onek, ba, asmo egi biurtzeko bidea aurkitu eban Maguntzia'ko Llulliar jakintsue-

kin izan zituari ar-emonai eskerak. Leipzig'eko jakintsuak be "characteristica universalis" (guztientzako bedegar) bat ekarri bu-ruan, eta orrek eroso egingo e-uten gizonai alkar obeto ulertzea, lera ta irriskeri barik gauzak ezta- baldatu eta beti be egia aurkitu errezago. Etorteko ziran liskar, gorabera ta izketak aurrerantzean ez ziran antxiñako teologuen mutur-joka lez izango, arramuka ta espantuz, iraun, inarrosaldi, irri-min eta eztenkadaz, ajedrez- joko nasai edo-ta kondulari jar- dun errez bezela baiño. "Filoso- fuen artean eztabaidak sortzen baldin ba'dira —ziñoan—, ez do- gu errazoika jardun bearrik izan- go, luma eskuan ipintea naiko izango da, ba, mai aurrean jarri ta batak besteari esan: "Jo daigun alde-alde..."

Gizaseme amesti onein izkuntza beti zenduan idatzitako izkuntza bat. Euren asmoz eta ustez zer ori- idatzitako ikur-atz edo marra moltzo bat izango dan, egokia nunbait paper gainean kalkuluak egiteko, baiña ez egaz egiteko aizearen putz-dardaraz. Pasifrafi (dana idatzi) utsak ei ziran, au da, "egiuneko aurrez jarritako begi- ikurrak bakar-bakarrik, ortarako letrak, izkiak, zenbakiak, gogai- lerroak, irudi-idazkera ta ola- koak, begituz bakarrik gauzak ulertzeko erabilliak", Pierre Jan- ton'ek esan ebanez. Oneik bear

bada gauza izan zitekezan latetari arteko izkuntza bat osotzeko, bai- ña bat bera be etzan aurreratu le- nengo egoeratik, bere grafi erri- idatzi izatek, ezta Jon Wilkin- ingles gotzainaren gota-milietako asmaoa ta ondo osatua, 1568'an ezagun-azotakoa be.

Prantzi'ko Matxinada aurre- koak eta iraultzailleak eurrak be, XVIII'garren mende ezkenetantz- modan ipiñi eben errazionalismo- barruan, auzi onek kezkatutako izkuntzalarien izendegi luzea aur- kitzen dogu. Guztion artean J. Maimieux nabari da batez be, bere "Pasigraphie" lana argitaratu eban onek, eta ementxe damosku bere ikasbide berezia, amabi ikur



Lejzer Ludwik Zamenhof, "Esperanto".

...oinarri atzezkoa, eta oneik
 ...leu edo bost taldetan alkartu
 ...terro, lesiko oso egiten dabe,
 ...akoa eta deabrua musikarekin
 ...an, Jean Sudre'k ezagu-
 ...en eban izkera oneitatik
 ...landu ta jakingarriena,
 ...sol' grixon, eta zazpi mu-
 ...notaz bakar-bakarrik antola-
 ...gan, garai atan gitura zanez
 ...terroko edo pentagrametan
 ...rik, Nota bakotzak gogai
 ...idela bakun bat adierazoten
 ...Nota ezkodun alkartzea,
 ...idela askorikoa. Esate baterako,
 ...antzako lerro eresitsu Do-Mi-
 ...Jaungoikoa esan gure
 ...Sol-Mi-Do'k, barriz, goiko
 ...terakoak, Izate Clurenaren aur-
 ...adierazten eban, au da,
 ...deabrua, Leza sakonean murgil-
 ...izkuntza barria ezin zeikean
 ...adierazo, baiña abestuz, bai
 ...antua zan eta, Jean Sudre'k nai
 ...eban legez, gizaseme guztiak be-
 ...an arri ta erabili ba'lebe, mun-
 ...gaur-egun opera-zelai zoraga-
 ...litzakean, eresi ta melodi lillu-
 ...garritz beterik, aingeruak be-
 ...en koru ederrakin gizadiaren
 ...nartai ta erre-miñez legokezala-
 ...k.

...andako gizaldia amaira ordu-
 ...o, J. Damm Leipzig'koak eta
 ...Baranowski errusiarrak, pasigrafi
 ...elulari asmo ta idela oso bizko-
 ...rak egokitzen jardun eban. Clure
 ...aldian, ostera, Berlin'go arki-

teko batek, Thimer abizenez, be-
 re izkera apartekoa sortu eban
 —Thimerioa—, mundu guztira
 zabal azteko asmoz. Bere gairik
 lauenak arabitarren zenbatze lau-
 kiko bederatzi zifrak ziran. Buru-
 rakizun guren eta jasoak adieraz-
 teko, era askotara nastu ta alkartu
 leikezan. "Nik maite zaitut",
 Thimerioz, "I-80-17" zan doi-
 doi. Maitasuna inoiz be ez bait da
 ilten, Herr Thimer'en asmakizu-
 nak aurrera urten ba'leu, "I-80-
 17" orain izango litzateke toki
 guztietan geien erabilletako algo-
 ritmoa.

"Thimerioa" oso gixik baiño
 ez eban onartu, baiña asmatzai-
 llearen adiskide baten jazoera eka-
 rri oi da, gizaseme ezcongé ta
 aketo-zapuztia, izkera au erabiltea
 oso atsegin yakona. Ez eutsen
 inok aituten, ak alan be bereari
 ekiten, muker be muker. Il za-
 nean, bere senitartekoak ikusi
 ebenez, aren kutxa sendoaren ez-
 kutua "I-80-17" zan ain zuzen be.

—A, zeken zarkote! —esan
 eban au jakitean—. Dirua baka-
 rrik maite izan euan eure bizitzan.

Geroagoko pasigrafiak dira
 "Translingua" (1956) deritxona,
 zenbakiak oinarri ditula Melvin
 Dewey liburutegi-zainarena ere-
 dutzat artutako sailkatze-tankera
 bategaz; Janson'en "Pieto"
 (1957) eta J. Effel'en "Avant-
 Projet" (1968). Oneik baiño obe-
 ta eragilleagoa, eta baita gaurkoa-

goa be, "Algol" (Algoritm Language), zenbatzailleen ("Konputadoreen") egitamua osotzeko egokia; au be, ba, paigrafi bat lez artu gengike, ikur-idatziz bakarrik egiña da-ta.

Babel'dik itxaropenera (esperantzara)

Gaur arte ikasiz asmautako izkuntza guztietatik bik bakar-bakarrik lortu dabe egiazko errikotsauna, eta bost lurraldetan mintzatuak eta idatziak izan dira: "Volapük" joan mendeko larogeigarren urteetan eta "Esperanto" 1890'rantza ari kintzea sartu eutsona eta oindiño be zutik dirauana.


Baden'go txauburu Johann Martin Schleyer'ek lez, Lazaro Luis Zamenhof, errusiar-polakarrjudutar osagilleak be, asmatzaille nabarmen bi, ondo' be ondo ezagutzen eben Biblia eta Babel'go kondaira izugarrian gizadia eskue-tan konpadak ezarrirako elbarritu bat ikusten eben, izkuntzen naspillaren erruz aurrerakuntza bidean geldi-arazoa. Izkuntz-naspillak, baiña, denporen azkeneraiño iraun bearko ete?, iñotsen alkarri. Ez ete da noiz edo noiz jaso al izango, diralako arrokeriak erat-xita, alkartasunaren torre garaia alkar ulertu nai daben pertsona guztien alegiñai esker?

Une onetan, ez Schleyer'ri ez Zamenhof'i falta yaken itxarope-

na (esperantzara). Bigarrenak bere buruari eritxon Esperanto (esperantzara daukana) Maixu eta auzo izen-goiti berau, bere jarraillera aoz, berak asmautako izkuntza adieraztera igaro zan. Itxaropen, "Esperantzara" deituriko izkuntza bat, izan zeikean, bai orixe, bultzada bat, sastada bat, bizilagun aaltsu bat Babel'go madarikapena suntsitzeko...

Zamenhof, "Esperanto" asmautu ebana, gizaseme apala zan, bere kitatxuan bizi zana. Onela eban eban: "Laterri arteko izkuntza bat bakarraren aldeko mogimintuaren egiazko aita, Schleyer izanda".

Johann Martin Schleyer, apaiz doixtarra, "Volapük" izkuntza sortu ebana dogu, 1880'garrenean. Antzez egiñiko izkera onen iztegia andik eta emendik artutako itz-sustraikaz, erromatar eta jermantarrakaz, inglesakaz batera be ("Volapük" itzak berak be ingleseetik dau jatorria, "world speak", munduko izkera), eta lojika osoz egiñiko gramatika bat eukan, alemanetik artuta zati galanta. Schleyer'en asmakizunak beingoan egin zituan jarraillak ia-ia mundu guztian. 1888'garren urtean bakar-bakarrik izkuntza barri orri buruzko 182 liburu argitaratu ziran. 283 alkarte eukozan agiri-agirian eusten eutsoenak, eta 25 izkuntzatik gora aurkitzen ziran idatzita berau erakusteko



Mundu guztian zabalduko den esperantoa.

esku-liburuak be.

Baiña "Volapük" asmatu eban arto ta zital bait zan, apurka apurka itxi egin eben bere alderdikoak, eta 1887'an jaiotako "Esperantoa"-ak ia toki guztietan aren lekua artutera eldu zan. Gaur egun "Esperantoa" indartsu dago; baiña "Volapük-az ezta inor gogoratzen.

Erreza, egokia ta bererakoa

Esperantoak, Europa'ko nazio-izkuntzarik geienetan erroak egiña, baita griegoan eta latinean be, eta lojika aundiko gramatika errez batekin, orain be jarraitzen dau, orrela, munduko izkuntza ospetsu ta zabalena izanik.

Gaurko bere iztegia 16.000 suster-itzetan oiñarritzen da, eta eurotatik atera leikez 160.000 itz baiño geiago esan-nai argi ta ondo mugaturiko eraskin edo aldasker (afijo) bitartez. Sustrai berbera izen, izen-lagun, aditz naiz aditz-lagun egin daiteke, bakotxari dagokionez o, a, i, e, amaiak jarri-rik. Adibidez, "gajo", poztasun; "gaja", poztun; "gaji", poztu; "gaje", pozik. Arauzko aditz-joko bat dago bakar-bakarrik eta erreza-erreza da aditzaren aldi bestelakoak osotzea.

Bere erreztasunak eta erosotasunak errialde guztietako ateak edegi dautsoez. Ba-dauko onezkerro, bere literaturaz kanpo, itzulpeneko moltzo eskerga bat be (munduko literaturako idazlanik ederrenak, zetan esanik bez); esan daiteke, beraz, ba-dogula esperantozko kultura bat, ingles kultura ba-dogula esan oi dogun legez, edo frantsesa naiz alemana. Zientzi-aldizkari askok euren idazlanen laburpenak eskintzen dabez Zamenhof'en izkuntzan. Ikastetxe Nagusietan (Españña'ko La Laguna'koan, esate baterako) erakusten da, eguneroko askoren bitartez zabal-azten da eta bere jarraileak ludi-maillako batzarretan alkartzen dira orain-geroka; oneitako irurogei bat ospatu dira orain arte. "Universala Esperanto Asocio", Rotterdam'en dauala bere egoitza, da dudarik bage al-

karre onen gaurdora gauriak zoztzen dituzten ardurarik behar.

"Aita harturakoa"

Baiha esperantaren zer gauriak ez dira gogoa arnauk izan. Eurenak bainuak elako ixil-arnauk erne-ate daben. Adibidez, bere mugitza bakarra ("la") eta iren-lagun gaurien amaia ("a"), gaurdortaz lez emantekien onartem yakena. Oron, ikasle andaluzian daret, espe-
rantarako lehenko ikasgaien es-
tuan, bere irakasleari ihotsen:

—Ez yut atsegin esperantoa. Nika irkuntza dirudi. Gaurte daret ze begirute euki leio asarte egiten dituzten bere aitari, au "la kria gaur" besterik ez dala ba-daki?

Esperantaren dako zomortak eta kostak, aian be, beste alde ba-
terik aitari dira. Latenti arteko ir-
kuntza, bein sartua izanik, onar-
tzen da eio hartertzen. Eragurten
da eio ukantzen asmatzaillearen
agintze osua. Baiha egia onar-
tzen dadi, eun leiker gaur eta biar
aldererik sartu. Irkuntzulari ba-
zak. —Beaufort eta Couturat
langurak — asmo onen sartu daben,
baiha ondoren eun-txarragoakaz.
Esperantoz asi adibidez
"ido"-az amaitzeko —aldakuntza
barnietarako edegirik dagoan es-
peranto alantutako ba'danean—,
eun ditteke egokia izan latenti ar-
teko irkuntza batenent. Aginpi-
dea na tinkotasuna gaurten ba'di-
na, bakandia egiten da irkuntza,

ondatu ta arkenoz eman es-
ko be balio.

Onok asoaldiko ipuin b-
karska gogora: Oianeko ab-
pitiak legeak euki nai zio
era onerik bete eragingo es-
agintzaritza, nazenaren men-
zi eiteran. Errege bat auker-
bada, erabagi eben. Leoiak
zitan autarkirik geienak.
zan agintari. Baiha egun b-
katamixarrak esan eban:

—Leoiak balio dau lortse-
tzeke abots eder aginpi-
daukalako, baiha ez da egoki-
zen aritza. Neuk ikasiko dot e-
antzera martu egiten eta gaur
askoz birkortago naz-eta, ob-
egintzeko eran aurkituko naz.

Arranoak esan eban:

—Erpa gogortak dauk
leoiak, baiha ezin dau egaz eg-
Ari daitezela nire atrakalak, e-
egaz egiteko daukadan erretas-
naz eta neure itxura edertat, e-
baiho askoz errege ohea izang
naz.

Danak gura eben leoiaren gaur-
sunak obetzea, bene-benetako be-
rutagia izan redin. Danak na
eben errege izatea. Eta era orretat
sartu zan naspilla aberen erre-
ñuan.

Latiña, irkuntza illa ala biria?

Ba-ran aldia, ez dakigu gaur
baiho obe ala txarrago, europar
ikasiak, eu-aberri-irkuntzaz gaur-
ñera, latiña itz-egin eta aise idar-

ten ebena. Ikastetxe nagusietako klaseak latinez emoten ziran, zientzi-lan asko be izkuntza ontan idazten, eta apaiz katolikuak, angloak eta emengoak izan arren, ondo alkar ulertzen eben Erroma zarako izkuntzan.

Berrogei urtetik gora gabiltzanok ondo gogoratzen dogu, oindino oraintsu, meza-emoilleak, meza bitartean, eliztarrengana biurtuta "Dominus vobiscum" edo "Ite missa est" aundikiro esaten ebela. Katolikuen liturgia toki guztietan erakazan esaera zarrak mundu guztiak ulertzen ebazanak. Bati-kano'ko II Eliz-batzarrak sartu zizkidan erri-izkerak elizkizunetan. Latinak orrela, elizetatik baztertua, geratzen yakon azken gaztetua galdu dau. Orain ozta-oztan erakusten da zerbait Ikasgu nagusietan, apaiztegietan be ia ezta erakusten eta gizon jakintsu batek be ez leuke erabilliko bere lanbide-idatzietan.

Alan eta guzti be, latiniaren gomuta, laterri arteko izkuntza lez, ezta osoan galdu; ba-dira biotz-minez gogoratzen dabezanak, latin jakin ezkerro, munduan zear biltzea erreza zan egunak eta aldiak. Bat sartzen zan Boston'go eliz katoliku baten naiz Munich'eko komentu baten naiz Marsella'ko ikastetxe erlijioso baten, eta ulertzen ziñan. Itzuliko al gara izkuntza klasikuetan oiñarritutako gizatiar ikasketa jardune-

tara?

"Aeronavis in reactionibus"

Izkuntzalari batzuk barriro urreratu dira izkuntza illetara, latin eta griego lez, eurok ber-biztuta ostera be eurok ibillian jarri nairik; olan barriz onura aterako litzakio, gaur-eguneko kultura askotarikoak likarriturik, aberri izkuntza askoren iturri dan jatorrizko gaiari.

Munduko izkuntza lez biztu-azoteko asmoak 1907'an izan eban bere garaia La Grasserie'ren "Apolema"-rekin. Latina asmo bardiñaz lurpetik aterateko xedeta erabagiak sarritan artu izan dira; ona batzuk: "Latino sine flexione" (Peano, 1903), "Semi-Latin" (1910), "Novi Latine" (1911), "Latinolus" (1919), eta abar. Oraintsu-oraintsungoa "Vita Latina" da, laterri arteko eragiera batetik sortua, eta onek dagoneko be batzar batzuk ospatu dauz, eta indar apartekoa erakutsiaz doakigu.

Baiña, Pierre Burney'k diñoanez, gaur-egun egunero latin erabilteak eragozpen naikoa ekarriko leukez. Berez-berez latin egiten zanean, mundua etzan gaur langoa. Ez eukan erreaktorik, ez idrogenozko bonbarik ezta ez eban ezagutzen Kominform'ik be. Olako gauza ta gaiak adierazteko latinak ez dauka itzik. Eta ez ete litzake barregarria orain olakoak asma-

tzen astea? Zelan ots-egingo ete leuke "aeronavis in reactionibus" edo "pyrobolus ab hydrogeno" edo-ta "Kominformus"-ek?

Atxur erdoitua

Latin illa izan ete leiteke, ain zuzen be, obitik aterea? Kaleko gizonak ba ditu oneri buruz bere dudak. Atzerapen bat litzatekela uste dau, aurrerakuntzarako katigutasuna. Funtsean, guztioi yaku eder eliz-gizonak "sursum corda"-ren ordez "gora biotzak" esan daiskuela laun ta eme, apainketa barik. Pozgarri yaku Ikaste-txeak latin erakusteaz artzen eben tximurtura ta bulur-andikeria galdu ixana. Ez litzakigu laket izango zientzi aldizkarietan latin textuak aurkitzea "virus", "enzimas", "mikro-eratzailleak" edo misilak eta olako itzakaz.

Baiña aldi berean aika diardugu gaurko izkuntza askotasuna dala-ta be; babeldar mundu onek, izan be, ez dagi besterik naziño artean arri-esiak jaso baiño. Gaitezan egizale. Min ez ete dausku emoten atxur zar sendo bat eukan luginak, lur-lan guztietarako egokia zana, bere etxe bazter batean ugertzen itxi ba'dau?

Elduko ete gara noiz edo noiz guztiok alkar aitutera, europar, asiar, afrikar, melanesiar, amerikar, australiar, polinesiar eta besteak, ildako izkuntza bat lurpetik atera bear izan bagarik, eta beste

izkuntzarik asmau bear izateke? Jente askok uste dau, mundua, naiz-ta beste itxura bat izan, bide orretan zear doala. Apika denpo-rea baiño ez dogu bear. Couturat jakitunak aurrez ekusan: "Antzez egindako izkuntzaz bere azken ondorioteraiño daroagu berezko izkuntzen joera sustraizkoetatik bat... Antzez egin izkuntzak ez dagi besterik azken ondorena aurreratu baiño..." Marzel Cohen'ek nekatzeke aldarrikatzen dau: "Gizadiak aurkituko dau izkuntzen askotasuna bazterreratze-ko bidea..."

Izkuntza bereztar edo "naturalistak"

Antzez egindako izkuntzen artean berezkoai geien urreratzen yakezanak eta ain zuzen be orixegaitik "naturalistak" deituak, oneik dira batzuk: "Lingua Franca" (antxiña baten itxasgizonak eta salerosleak Meditarreneo'ko ia kai guztietan itz-egiña) eta "Pidgin-English" (inglesen itxasontziak legor-alderatzen ziran txinarr portuetan geienik mintzatua).

Gugandik urrago, jarraigari baiño teorizko geiago, izkuntza "naturalisten" barruan oneik aurkitzen doguz: Von Wahl'en "Occidental" (1922), Jespersen'en "Novial" (1928) eta "Interlingua" 1924'an "International Auxiliary Language Association" ipar-amerikar alkarteak sortua,

Aragia ustelduta egoan

Azkenik be, egiaz, gizaseme guztientzako izkuntza bat bera jaristen ez dan bitartean, itzultzaileak eta itzul-makinak erabateko papera jokatu dabe, dudarik bage. Berez eta mekanikaz eginiko itzulpenak aomen eta entzute aundiak artu ditu. Makinak, alan be, oindiño beinik-bein, ezin dabe orkakotz egin giza-burua. Ona emen jazoera sonatsu ta barregarri bat, oraintsu gertatutakoa:

Ingles esaldi au biurtu bear zan: "The spirit is willing, but the flesh is weak" (Bibliako esaldi "arimea gertu dago, baiña aragia makal"). Makinea etzan gauza "spirit" ingles itzaren esan-nai biak beingoan bereizteko; itz onek, bada, batetik zentzun soilla dau, ta bes-

tetik likora esan gura dau, alkohol-espirtua; makinea ezta gai gainera beste izkuntzak ez bezela, inglesak "flesh" itzari ezarri daukon adieraz-legea bereizteko, au da, aragi edo izaki bizi baten gorputza, baiña ez jateko aragia, inglesak ba, "meat" darabil ortarako, euskaldunok geienez beintzat "okela" erabilli oi dogunez. Makineak, beraz, itzulpen au emen eban: "Uiskia ona da, baiña txuletea usaindua dago".

Baikor izan gaitezau. Alda joan-ala, gauzak aldatuko. Arimea gertu doa aurrerantz, eta ubkia bikaina izango. Giza-soiña bear bada aula izango aurrerantzean be, baiña txuletak ez dira onezkero usain-jario aurkituko.

AITA ONAINDIA'k



Esaldi gogoangarria

Ona da gogo ematea; ohea, gogo eman eta ekitea; ezin-ohoa, gogo eman, ekin eta osabetetzea.

LA FONTAINE

Gogoan artzekoa

Itzeko ere esperantza, ildakoeak bakarrik galdu dute.

DANTE ALIGHIERI

Esaldi zuurra

Eriotzaren esanai ezkutua jakiteko... bizitzari begiratu bear zaio muin-erdian.

KHALIL GIBRAN Profeta

SASKI-NASKI